

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

MENDIXURKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Behin betiko onarpena ematea etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa arautzen duen zerga ordenantza aldatzeari

Kontzeju honek, 2016ko ekainaren 20ko bilkuran, etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa arautzen duen zerga ordenantzaren aldaketari hasierako onarpena eman zion. Iragarkia 2016ko uztailaren 11ko ALHAOn –78. zk.– argitaratu zen, eta jendaurrean egon zen bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez zenez gero, behin betiko onartzen da. Beraz, Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren 16.4 artikuluari jarraituz (41/1989 Foru Araua), osorik argitaratzen da, indarrean jartzeko.

Etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa arautzen duen zerga ordenantza

Xedapen orokorra

1. artikulua

Administrazio batzar honek, Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen Foru Arauan ezarritakoari jarraituz, etxeak edateko urez hornitzearen tasa ezartzen eta eskatzen du, ordenantza honen arabera. Ezarri beharreko tarifak jasotzen dituen eranskina ere ordenantzaren zati da.

Ordaintzeko betebeharra

2. artikulua

Instalazioak eta zerbitzuak erabiltzen dituztenek daukate ordaintzeko beharra.

Zerbitzua

3. artikulua

Erabiltzaileen edo harpidedunen eta toki administrazioaren arteko harremanak ekonomiko-administratiboak izango dira, edozein dela ere toki administrazioak zerbitzua kudeatzeko hautatzen duen sistema, eta zeinahi dela ere toki administrazioak, herritarren beharrak asetzearren, langileak eta instalazioak atxikitzeko darabilen formula.

4. artikulua

Administrazio batzarrak antolatuko du zerbitzua, eta publizitatea emango dio antolaketa horri; egiaztagutunak emango zaizkie zerbitzura atxikitako langileei, erabiltzaile guztiek ezagut ditzaten eta horren bermea izan dezaten. Zerbitzuaren obrak eta instalazioak jabetza publiko-ondasunak dira, eta administrazio batzarrari dagokio ondasun horiek inbertsio planen bidez areagotzea. Plan horiek, betiere, zerbitzuaren ur emaria handitzea eta ur horien kalitatea hobetzea izango dute helburu.

5. artikulua

Zerbitzuak ez du izango irabazteko xederik, baina mantendu egin beharko da aurrekontuaren oreka, zerbitzuaren autofinantzaketa bermatzeko moduko tarifak aplikatuta.

Harpidetza polizak

6. artikulua

Edateko uraren zerbitzua erabili nahi duen pertsona edo erakunde orok administrazio batzarrera jo behar du; bertan emango diote horniduraren baldintzen berri eta kontsumo mota bakoitzerako ezarritako harpidetza poliza bete beharko du. Eskaera egiten duena ez bada finkaren jabea, jabearen baimen idatzia aurkeztuko du.

7. artikulua

Ez da inolako ur hornidurarik egingo harik eta erabiltzaileak dagokion harpidetza poliza sinatu arte.

8. artikulua

Harpidetza polizak ez du epe mugarik izango, baina erabiltzaileak, zerbitzua utzi nahi izanez gero, baja eman baino hilabete lehenago jakinarazi beharko du hornidura kontratua bukatutzat eman nahi duela.

9. artikulua

Zerbitzuan baja eman ondoren hornidura berriro hasi nahi izanez gero, beste harpidetza poliza bat izenpetu beharko da.

Hornidura

10. artikulua

Zerbitzuak harpidedunarekin batera ezarriko du —urez hornituko den higiezinaren, lokalaren edo bulegoaren baldintzak kontuan hartuta— zeintzuk izango diren horniduraren gutxieneko ur emaria, instalazioaren neurri ezaugarriak, eta kontagailuaren ahalmena.

11. artikulua

Erabiltzaileak ezingo du aldatu jasotzen duen uraren erabilera, aldeztatik beste helbururako harpidetza poliza izenpetu gabe. Erabiltzaileak, era berean, ezingo du funtsezko aldaketarik egin instalazioaren ezaugarrietan, ez eta kontagailua bere kabuz aldatu edo ordezkatu ere; ezingo die, orobat, urik eman beste pertsona edo erakunde batzuei, ez eta hornidura banatu ere harpidedunaren ustezko maizter edo errentarien artean.

12. artikulua

Modalitate hauetan hornitu ahalko da edateko urez:

Etxeko erabilerarako kontagailuaren bidez; hau da, elikadurarako, norberaren garbiketa eta higienarako eta etxebizitza gisa erabiltzeko eraikin eta higiezinarako kontagailuaren bidez, berdin delarik eraikin eta higiezinak iraunkorrak zein aldi baterako diren. Hori egiaztatzeko eskatzaileak bizigarritasun baimena eskatu beharko du hartunea eskatzerakoan.

Industria erabilerarako kontagailuen bidez; hona hemen azpimodalitateak:

a) Ura higieze garbiketarako bakarrik erabiltzen duten industria eta saltokiak.

b) Ura osagai edo lehengai gisa erabiltzen duten industriak (okindegiak, izotz fabrikak, abeletxeak, eta abar); hau da, ura fabrikazio prozesuan erabiltzen dutenak.

Aurreko ataletan sartzen ez diren erabileren kasuan, diren industriako erabilerarako, erabilera publikorako zein etxerako, zerbitzuak kasu bakoitzean proposatuko du, eman zaizkion datuen arabera, zein den ezarri beharreko ur emaria, eta emari horren arabera zehaztuko dira baldintzak eta tarifak.

13. artikulua

Zerbitzua ez dago behartuta nekazaritzarako ura ematera, ez eta lore, lorategi edo zuhaitz ustiapenatarako eta igerilekuetarako ere. Hori eginez gero, industriarako tarifa oinarri fakturatuko dira kontsumo horiek.

14. artikulua

Harpidedunak etengabe urez hornituko dira, salbu eta zerbitzuarekin zerikusia ez daukaten gorabeherarik badago tarteko.

15. artikulua

Zerbitzuak ezin izango dio ur hornidura eten harpidedunari, ordenantza honetan jasotzen diren kasuetan izan ezik.

16. artikulua

Honen aurreko artikulua ondu ondorioetarako, hauek izango dira hornidura eteteko kasu justifikatuak:

Hornidura ezinezko egiten duen matxuraren bat gertatzen bada zerbitzuaren edozein instalaziotan.

Ur emari erabilgarria galtzean edo gutxitzean, nolabaiteko gabezia sortzen bada ur horniduran, ur bilketan edo uraren presioan.

Biztanleria handitzeak desoreka sortzen badu dauden horniduren eta kontsumo beharren artean, harik eta hornidura horiek handitu arte.

Hornidura baldintzak hobetzeko beharrezkoak diren instalazioetako obrak, konponketak edo hobekuntzak irauten duten bitartean.

17. artikulua

Zerbitzuak harpidedunei alaitz azkarren jakinaraziko die eten egingo dela hornidura eta zer ordutan etengo den. Larrialdi kasu garbietan edo ezinbestean soilik utz daiteke ohararazpena egin gabe; halakoetan, gerora egin beharko du, etenaren arrazoien eta ustez iraun lezakeen denboraren berri emanez.

Hartuneak**18. artikulua**

Hartunea da ura eramaten duen adarra, hurbilen dagoen banaketa hodontik hornitu nahi den higiezinera. Adar horrek ezaugarri espezifikoak dituen hobi eroale bat izango du, hornitu beharreko ur kopuruaren arabera; ur hartune bakar batetik askotariko hornidurak egin daitezke finka berera.

19. artikulua

Zerbitzuaren erabiltzaileak, higiezinaren eraikitzaileak edo etxebizitzaren jabeak kontratatuko ditu adarraren edo hartunearen ezaugarriak, haren instalazioa, zainketa eta mantentze lanak, betiere toki administrazioaren aginpide teknikoaren menpean.

Adarra edo hartunea zerbitzuaren ikuskatzaitza teknikoaren menpean jarriko da, eta eskatzailearen kontura.

Eraikuntzak banaketa sarerik ez dagoen eremuetan egiten badira, eta obrak egiteko baimena administrazio batzarrak eman badu, sare berria eskatzailearen kontura izan dadila eska daiteke, baina zerbitzuaren ikuskaritza teknikoaren menpe eraiki beharko da.

Hartune guztiek erregistro giltza bat izango dute bide publikoan.

20. artikulua

Adar edo hartune bat egongo da finka, eraikin edo higiezin bakoitzari zerbitzua emateko. Higiezinaren zati bateko maizter edo errentari batek hornidura berezi edo banakakoa nahi badu, eta zerbitzuaren iritziz justifikaturiko arrazoirik badago horretarako, jar dezake hartune hori, baina aurrez administrazio batzarrak aldeko txostena emanda.

21. artikulua

Jabeek, eraikitzaileek edo erabiltzaileek fatxadatik edo finkaren mugatik aurrera xedatuko dute instalazioez.

22. artikulua

Kontratua amaitutakoan edo deuseztatutakoan, adarra libre geratuko da jabearen esku; interesdunak bost egunen buruan adierazi behar dio zerbitzuari, era frogagarrian, adarra bide publikotik kentzea erabaki duela. Horrela egiten ez badu, adar hori ez zaiola interesatzen ulertuko da, eta administrazio batzarrak egoki iritzitako neurriak hartu ahal izango ditu.

Kontagailuak

23. artikulua

Edateko uraren hornidurarako kontagailuak eraikin bakoitzaren barruko aldean jarriko dira, harpidedun bakoitzeko bat, eta denak toki egokian, erraz iristeko moduko lekuan, higiezinaren fatxadan kokatuak, edo finkaren mugan, haiek bat ez datozenean, eta ixteko giltzatik ahalik eta hurbilen. Konpartimentu edo kutxa batean egongo dira, halako moldez non edonork eta erraz egin ahalko duen irakurketa. Kontagailu bat baino gehiago batera egonez gero, bateria sistemaren edo antzekoren baten bidez jarriko dira. Ordenantza hau onartu ondoren instalatzen diren kontagailuak ixteko bi giltzaren artean jarriko dira; hartara, matxurarik gertatuz gero, erraz kendu eta berriro jarri ahalko dira. Kontagailutik abiatuta, hartunea zuzenean joango da harpidedunaren instalazioetara, inolako adarrik gabe. Erabat debekatuta dago kontagailu bera harpidedun batek baino gehiagok erabiltzea.

24. artikulua

Administrazio batzarrak ezarriko ditu harpidedunak erabili behar duen kontagailu mota, haren diametroa eta kokagunea. Behin jarri ondoren, erabiltzaileak ezin izango ditu manipulatu, nahiz eta haren jabetzakoak izan.

25. artikulua

Kontagailua zaindu egin behar da, egoera onean egon dadin eta ondo funtziona dezan. Administrazio batzarrak beharrezko jo adina ikuskatze egin dezake, bai eta egoki jotzen dituen konponketak ere, eta konponezina den matxuraren bat gertatuz gero, hura aldatzera behartu dezake erabiltzailea.

26. artikulua

Kontagailua harpidedunarena izango da, baina instalazioa administrazio batzarraren zuzendaritza teknikoaren pean egingo da; matxuraren bat gertatuz gero, zerbitzuak baizik ez du izango eskuztatze eta konpontzeko eskumena, baina konponketa harpidedunaren kontura izango da.

27. artikulua

Iruzurra izango da edozein manipulazio, harpidedunak edo administrazio batzarraren baimenik ez duen pertsonaren batek kontagailuan, hartunean nahiz instalazioetan egina ura kontagailutik pasa ez dadin edo egindako kontsumoa behar bezala jaso ez dezan.

Barruko instalazioak

28. artikulua

Kontagailutik aurrera, harpidedunak ura bere erabilerarako banatuko du, eta nahi duen eran egingo ditu horretarako lanak, zerbitzuak eskulanean eta beharrezkoak diren materialetan parte hartu gabe.

Zerbitzuaren ikuskatze teknikoaren pean egongo da barruko banaketa, zuzen dagoela egiaztatu ahal izateko edozein momentutan, eta iruzurrak eta kontraturiko kontsumoan gerta daitezkeen gabeziak saihesteko.

29. artikulua

Harpidetza poliza bakoitzari dagokion instalazioa ezin da egon lotuta beste jatorri bateko ezein sare, hodi edo banaketari. Era berean, ezin izango zaizkio lotu beste harpidetza poliza batetik datorren instalazioari, ez eta administrazio batzarraren ura nahastu ere haren iritziz berme tekniko edo sanitarioz ez duen urarekin.

30. artikulua

Erabiltzaileak andel hartzaileak, erregulatuak edo erreserbakoak instalatu ahalko ditu, bere banaketarako, haiek txukun eta desinfektaturik mantendu behar dituelarik, eta erabiltzailea izango da sor dezaketen kutsaduraren erantzulea. Era berean, ura galtzea saihesteko sistema automatiko edo eskuzkoak edukiko dituzte, nahiz eta ur hori kontagailuak erregistratutakoa izan; gauzak behar bezala ez zaintzea zerbitzua galaraztea da.

31. artikulua

Era berean, presio ekipoak edo bestelako artikuluko teknikoak jar daitezke beren ezaugarrietatik hala komeni zaien higiezinetan, kontsumo aukerak orekatzeko hartune beretik ura hartzen duten harpidedunen artean edo barruko instalazio baten zati desberdinen artean. Edonola ere, honako printzipio hau bermatu behar da: edateko ura higiezinaren sarrerako hartunean kokatuta dagoen pasoko giltzatik igaro eta berehala pasatuko dela kontagailu guztietatik, iruzur egiteko edo zerbitzua oztopatzeko aukerarik egon gabe eta aplikazio horrek sare nagusiko beste ezein harpideduni eragin gabe.

Kontsumoa

32. artikulua

Harpidedunak edateko ura kontsumituko du harpidetza polizan ezartzen diren baldintzen arabera eta ordenantza honetan horniketaren ezaugarriei zehaztutakoaren arabera.

33. artikulua

Kontagailuak adierazitakoa izango da benetako kontsumoa. Erregistratutako kontsumoa araubidezko gutxienezkoa baino txikiagoa bada, gutxienezkoa kontsumitu dela ulertu ahalko da, kontagailuak markatutakoa gorabehera.

34. artikulua

Kontagailuak matxuraren bat izan duelako edo ondo ez dabilelako ezin bada jakin zenbat ur kontsumitu den, ulertuko da aurreko urteko aldi berbereko ordainagirian agertzen dena kontsumitu dela eta, horrelakorik ezean, azken hiru ordainagirien batez bestekoa; hau da, benetan gastatutakoari gehien hurbiltzen zaion kalkulua egingo da. Sistema hori salbuespenezkoa izango da, eta aldi baterakoa; halakoetan, erabiltzaileari dagokio kontagailua ahal bezain laster aldatzea.

35. artikulua

Erabiltzailearen bat ez badago ados kontagailuak erregistratzen duen kontsumoarekin, kontagailua aztertzeke eta egiaztatzeke eskatuko dio administrazio batzarrak industria ordezkariari; zerbitzuak erregistratutakoa ondo badago, harpidedunak ordainduko ditu gastuak; txarto badago, berriz, zuzendu egingo da okerra.

Kobratzeko oinarriak

36. artikulua

Kobratzeko kopurua arautzeko, ur kontsumoa eta horren erabilera hartuko dira kontuan, bat etorritz ordenantza honetako tarifen epigrafeetan ezarritakoarekin.

Tarifak

37. artikulua

Harpidedun bakoitzak kontsumitutakoa administrazio batzarrak fakturatuko du, une bakoitzean indarrean diren tarifak zorrozki aplikatuz.

38. artikulua

Ur kontsumoa edozein dela ere, tasa eta prezio hauek ere fakturatu ahalko dizkio harpidedunari administrazio batzarrak: kontagailuak zaintzea, hartuneak egitea, instalazioak ikuskatzea, bide publikoan obrak egitea, lotura eskubideak ematea eta ordenantza hauen eranskinean jasoriko "Tarifak" izeneko epigrafeko beste edozer.

39. artikulua

Urtean behin fakturatuko zaio horniduraren zenbatekoa harpidedunari, administrazio batzarrak fakturazio aldi hori aldatzea erabakitzen ez duen bitartean behintzat.

40. artikulua

Aldeetako edozeinek eskritura publikoa egiteko eskatuz gero, harpidedunak ordainduko ditu gastuak (administrazio batzarrarentzako kopia kautoa barne), bai eta estatuaren, autonomia erkidegoaren, lurralde historikoaren, kuadrillaren, udalerrriaren edo ur partzuergoaren aldeko edozein motatako zerga eta kontribuzioak ere, sortuak edo sortzeke daudenak, polizari dagozkionak zein polizaren menpe eta haren eranskinetan eta oharretan egiten den kontsumoari dagozkionak.

41. artikulua

Harpideduna behartuta dago, bere instalazioak zein administrazio batzarrarenak erabiltzean, kontratatutako ura egokiro eta arrazionalki kontsumitzera, gainerako erabiltzaileei kalterik eragin gabe.

42. artikulua

Zerbitzuaz hornitzeko edateko uraren erabilera falta larririk egiten bada, isunak jarriko dira, eta administrazio batzarraren iritziz falta erabat larria bada, harpidetza poliza berehala hutsalduko da.

43. artikulua

Aurreko artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, falta larritzat joko dira egintza hauek:

Harpidedunaren ohiko jardueraren aldean neurri gabeak diren ur emariak justifikatu gabe kontsumitzea.

Erabilera txarren bidez horniduraren erregulartasuna oztopatzea, erabilera horiek beste erabiltzaile batzuen hornidura eragotz badezakete murrizketen edo hornidura mugatuen garaian.

Urari polizan adierazitakoaz besteko erabilera ematea.

Zerbitzuaren baimenik gabe ura hirugarrenei ematea, dela dohainik, dela kostu bidez.

Zerbitzuaren ura beste aprobeitxamendu batzuetatik ateratzen denarekin nahastea, batez ere nahasketak kutsadura arriskua sortzen badu.

Zerbitzuaren ordezkariari sartzeko ez uztea harpidedunaren ur hartuneak edo kontagailuak dauden lekuetara, baldin eta arrazoizko zantzuak badaude zerbitzuari iruzur egin zaiola edo zerbitzua eragotzi dela.

Kontratuaren epea amaitu ondoren edo kontratua hutsaldu ondoren ura kontsumitzen jarraitzea.

Pasoko giltzak itxi edo irekitzea, zigilaturik daudenean.

Instalazioak manipulatzeko, benetan kontsumitu den ur emaria kontagailuetan erregistratu ez dadin.

Ordaindu nahi ez izatea kontsumitutako uraren zenbatekoa edo edateko uraren kontsumoarekin lotutako eskubideak eta tasak, baldin eta ez badago erreklamazio oinarriturik ebazteke diru kopuruari edo ordaindu ez diren diru kopuruei dagokienez.

44. artikulua

Iruzurengatik espedienteak abiaraziko da, eta toki administrazioaren arloko xedapenen arabera izapidetuko da. Ohiko jurisdikzioan salatuko dira delituak diren egintzak, hala nola zigiluak haustea, instalazioak suntsitzea, urak kutsatzea eta Zigor Kodean zehaztutako gainerakoak.

45. artikulua

Zordunak indarrean den legedian ezarritako premiamendu bidean sartuta geratuko dira.

46. artikulua

Harpidedunak baino ez du izango erantzukizuna neurritz gain kontsumitu izanagatik hirugarrenei sortutako kalteengatik.

Xedapen iragankorrak

Lehenengo xedapen iragankorra

Ordenantza hau indarrean jartzen denean sinatuta dauden kontratuak, baita ahoz adostutakoak ere, ofizioz egokituko zaizkie ordenantzaren xedapenei, eta erabiltzaileak behartuta daude bertan zehazten diren arauak betetzera; hala ere, zerbitzuak, kasuan kasu erabaki dezake harpidedunek bereganatuta dauzkaten bidezko eskubideak errespetatzea. Edonola ere, eskubide horiek iraungi egingo dira lehendik indarrean zegoen kontratua amaitzen denean.

Azken xedapenak

Azken xedapenetatik lehenengoa

Ordenantza hau eta haren eranskinak ALHAOn argitaratzen direnean jarriko dira indarrean, eta hala iraungo dute aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

1. eranskina

Administrazio batzarrak ezarriko ditu tarifak urtero.

Mendixur, 2016ko abuztuaren 22a

Lehendakaria

FERNANDO SÁNCHEZ ARANAZ